

5.1. Gaia. Planifikazio fasea.

Orokorrean eta era sinplifikatuan, diseinu prozesua ondorengo faseekin planteatzen da (ikus 3. gaia):

- Produktuaren Planifikazio eta Aritzte fasea, produktuaren inguruko eskakizunen informazioa eta lehenengo ideien sortzea eskatzen du. Fase honen ondorioa eskakizunen xehetasunezko lista bat da.
- Diseinu kontzeptualeko faseak ondorengoak inplikatzen du: abstrakzio ariketa bat oinarritzko arazoak topatzeko, egitura funtzionalak eratu, lanerako hasierak topatu, laneko printzipioak lanerako egituratan konbinatu, lanerako egitura egoki bat aukeratu eta soluzio nagusi edo soluzio hasera bat garatu.
- Multzoaren Diseinu fasean, diseinatzailea, Diseinu kontzeptualeko fasean sortutako kontzeptutik abiatzen da eta bere lanean aurrera doa produktuaren edo proposaturiko sistemaren behin betiko distribuzio bat sortu arte edo eskakizun tekniko zein ekonomikoekin bat datorren proposaturiko sistema bat. Antolaketa honek funtzionalitatea, indarra, bateragarritasun espaziala, etab. egiaztatzea ahalbideratzen du. Fase honen amaieran bideragarritasun ekonomikoa ebaluatzea posible izan behar da.
- Xehetasunezko Diseinuaren fasea fabrikazio planoei eta azken xehetasunei dagokie.

Diseinuko prozesuko faseak denboran bata bestearekin gainezarrira egotea komeni da, faseen parte bat une berean gerta daitezten. Helburu nagusia, diseinu prozesuaren denbora murriztea da, aktibitateen integrazio hobea baten bidez, fase bakoitzean ondorengo faseko datuak eta erabakiak gehituz.

Diseinu prozesuaren denbora totala proposaturiko produktu edo sistemaren konplexutasunaren arabera da. Diseinu prozesuaren kronograma generikoa ondorengo litzateke:

FASEA	10%	20%	30%	40%	50%	60%	70%	80%	90%	100%
Planifikazioa										
Diseinu Kontzeptuala										
Multzoaren Diseinua										
Xehetasunaren Diseinua										

5.1 Taula: Kronograma

Arazo bat ondo estrukturatuta egongo da bere helmuga eta helburuak zalantzarik gabe definiturik daudenean, aukera kopurua osoa eta mugatua denean, eta soluzio algoritmo bat existitzen denean. Nahiz eta soluzio hau ideala izango litzatekeen, egia da baita ere, beti ezingo dela bertara ailegatu, baina ahalik eta gertuen iristen saiatu behar da.

5.1.1. Informazioaren kudeaketa

Planifikazio fasearen aspektu garrantzitsuenetariko bat proiektuaren inguruko informazioaren bilaketa eta kudeaketa da.

1. Proiektuarekin erlazionaturiko dokumentazioaren artean informazioa bilatu: aldizkariak, katalogoak, espezializatutako bibliografia, normak, feriak eta erakusgarri industrialak.
2. Ahal den informazio gehien sailkatu.
3. Aukeratu lortutako informazioa. Lortutako informazio guztia ez da baliagarria izango beraz irizpide batzuk finkatuz sailkatu beharko da: produktu talde desberdinak, iraunaldi, berrikuntza gradua.
4. Aukeratutako informazioa kondentsatu. Gomendagarria da informatika erabiliz informazio hori trinkotu eta edukiaren laburpenak egitea.
5. Informazioa ebaluatu dokumentazioaren fidagarritasunaren arabera bereiziz: datu objektiboak, iturria fidagarriak, ...
6. Informazioa kodifikatu bere bilaketa errazteko, adibidez zerrendatuz.
7. Informazioa gorde. Behin sailkatua fitxategiak sortu daitezke, datu baseak, ...
8. Informazioa igorri. Taldean lan egiten denean beharrezkoa da dokumentazioaren trukaketa ziurtatzea.
9. Konklusioak elaboratu. Diseinu prozesuan zehar sailkaturiko informazio hau arazoa definitzeko, alternatibak sortzeko, ebaluatzeko, ... erabiliko da.